

Epopeia latza

Alex Gurrutxaga

Hutsegiteen garaia Mohamed Xukriren trilogia autobiografikoa-ren bigarren liburua da, *Ogi hutsa*-ren ondorengoa. Hartan haurtzarora zuen hizpide idazleak; hemen 20 urte inguru dituenetik aurrerakoak kontatzen ditu eta, *Ogi hutsa* bezala, liburu gogorra bezain ederra da.

Larachen abiatzen da nobela, 1956an, Xukri ikasle hasten denean, eta hortik aurrera hainbat dira espazioak: Tetuan, Ceuta eta, batez ere, Tanger: Xukriren hitzetan, «hiri madarikatu nirea; ihes eginda ere, ezin bizi bata bestea gabe». Izan ere, Xukriren biografia oso lotua dago txikitatik kaleko bizitzari. Miseria pairatu zuen, gosea, zikinkeria, biolentzia, prostituzioa eta alkohola, eta osagai horiek aldaude haren literaturan borborka: «Mozkorren, haxix-zaleen eta gautxorien bideari jarraitzen nion. Beti aurkitzen

nuen lekua haien artean. Izan ere, oroitzapen berberak genituen, hizkuntza bera; geure mundua gau eta egun, geure darikazio ederrean». Eroetxean ere egin zituen lau hilabete inguru, eta egonaldi horri eskaintzen dio *Ahaztuak* kapitulua.

Hutsegiteen garaia-n agertzen dira bere bizitzako aurreneko erreferentzia literarioak: Safi ed-Din al-Hili, Al-Manfaluti, Victor Hugo, eta beste asko. Horrela, idazlearen esnatzea ikusten dugu



'Hutsegiteen garaia'

Egilea: Mohamed Xukri. **Itzultzailea:** Arantzazu Royo. **Argitaletxea:** Igelga.

apurka –60koetan hasi zen argitaratzen, baina urte luzez zentsuratu izan zen arabieraz—. Irakurketek erakutsi zioten, Xukrik berak Miel A. Elustondori elkarrizketa batean esan zionez, «herri baten historia poetak idazten duela [...] Historia ofiziala ordaindurik dago». Xukri, kontrara, bere bizi-baldintzek nabarmen markatutako idazlea da; honela idazten du *Hutsegiteen garaia*-n: «Bera ez zen aberatsen zabor artean ibili jateko, ez zen zorritz beretik ibili, ez zituen izan orpo zartatuak odoletan. Nik ez nekien nola idatzi txorien esnari buruz, ez aingeru-edertasunaren laztan samurraz (...). Ez nekien nola idatzi buruan kristalezko pintzel bat izanik. Pintzela protesta da, ez apaingarri bat».

Pertsonaia asko agertzen dira nobelan, eta gehienak istoriotik sartu eta atera egiten dira. Zerbait kapitulu pertsonaien erretratu modukoak dira, eta horien bidez hainbat gai jorratzen ditu idazleak; *Lechevalier* edo *Patricia* atal ederrak aipa daitezke, edo *Rosario* atala, zeinetan frankismoa den gai nagusietako bat.

Autobiografia izaki, oroitzape-

nei segika aurrera eta atzera ibiltzen da narratzailea, batera eta bestera, eta zehazgabetasun hori ongi ezkontzen da tramarekin, honek berea baitu giro nahasia. Beharbada, liburuaren erditik atzera elipsi batzuk handiegia gerta daitezke, konkrezio falta mugara eramana baitago.

Abiadura biziko testua da, elipsi askorekin, eta estilo zuzen eta gordina dauka, zakarra, ia baloraziorik gabea. Esanguratsua da Joseba Sarrionandiak *Ogi hutsa*-ri buruz idatzi zuena: «Arabiar tradizioaren kontrako mendekutzat har daiteke, Mohamed Xukrik arabiera koraniko literarioaren dotoretasun guziaz kraskatu baitzuen, gairik larrienak modurik gordinenean kontatuz». Gordina da, bai, bere estiloa, eta halaz ere badago han-hemenka lirismo mikatz moduko bat, dotorezia handikoa.


Mundu bat erretratatzeko Xukrik, eta fikzio indartsu bat eraikitzen. Sarrionandiak *Ogi hutsa*-z idatzi zuen: «Arrifí deseroitua epopeia latza da, gaur eguneko miseriaren etnografia moduko bat». Halatsu *Hutsegiteen garaia* ere.



'Gene Yurre bidegilea'

Egilea: Faustino Aranzabal. **Itzultzaileak:** Urumea Euskaltegaia eta Pablo B. Maidagan. **Argitaratzailea:** Kresala dantza taldea.

Gene Yurre dantzari eta koreografoaren bizitzako zertzeladak ematearekin batera, hark dantzaren munduan egindako ibilbidea aztertzen du liburua. Donostiako Kresala dantza taldea sortu zuen Yurrek, eta hura zuzendu zuen urte askoan.



'Karmel', 288. zenbakia

Argitaratzailea: Euskal Herriko karmeldarrak.

Santa Teresaren jaiotzaren bosgarren mendeurrenean (1515-2015) du izenburua *Karmel*-en 288. zenbakiaeren hasierako editorialak, eta aurreragoko orrialdeetan badira Espainiako letretan eta erlijioaren historian horren itzal handia duen pertsonaia horri eskainitako hainbat idazlan ere.



'Argi-koroak'

Egilea: Xose Maria Diaz Castro. **Itzultzailea:** Gerardo Markuleta eta Patxi Zubizarreta. **Argitaratzaileak:** Eusko Jaurilaritza eta Galiziko Xunta.

Xose Maria Diaz Castro poeta-ren liburu bakarra da *Nimbos*, 1961ean argitaratua eta orain poemen euskarazko itzulpenekin lagunduta berrargitaratua. Olerki sorta intimista da, Galizian oihartzun zabala izandakoa.

Klase magistrala

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Ez da lehenengo aldian kontalaria eskolara datorrena. Duela hiruzpahiru urte ere etorri zen [*Ipuin-kontalariaren arbela* (2010)], elurak inguruak zuri-tuak zituen egun batean, hotzak lurrundutako leihoetan gurekin jolastera. Ongi pasatu genuen orduan, eta ongi pasatu dugu gaur ere.

Magia saio bat egin digu oraingoan, ekarri duen kutxa batekin. Garaziri eskatu dio kutxa eskua sartu, eta topatzen zuena ateratzeko. Eta Garazik letra bat atera du: U letra. Eta kontalariak esan du: «A, E, I, O, U hemen gaur». Eta hortik aurrera dena kontu izan da, dena magia.

Egia zor, lehen ez dut zuzen esan: eskolara etorri aurretik ere ezagutzen genuen kontalari bizartzuri hau, herriko kultur etxera pare bat baldiz azaldu zitzaigun-

lako [*Ipuin-kontalaria* (2008), *Ipuin-kontalariaren lapikoa* (2009)], baina nik ez dut gogoan oso txikia nintzelako. Orain zazpi urte ditut, eta orduan nire ahizpa egon zelako daukat hango berri. Nire ahizpak hamaika urte dauka, eta irakurle trebea da. Agian berriz kontatzeko eskatuko dit, gaur gauean, afalostean.



'Ipuin-kontalari magoa'

Idazlea: Pello Añorga. **Ilustratzailea:** Jokin Mitxelena. **Argitaletxea:** Aizkorri.

Norbere buruaren bila

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Zer pasatzen da futbolariaren burutik, penaltia bota behar duenean? Noraino egin behar du atzera, abiadura egokia hartzeko? Eta bi galderak batuta: noraino egingo du atzera bere bizitza berrosatu behar duen batek, baloiantz jo aurretik?

Gutxi-asko honela laburtu liteke –abiatzen den unetik amaiera arte– obra honek bere laurogei orrialdeetan eskaintzen duen ibilbide literarioa.

Futbolearen ari diren haur haue-na aitzakia da arnasaren beharra aldarrikatzeko eta, bide batez, haren faltan dagoenari hats pixka bat ematen ahalegintzeko.

Bai, arnasa hartu, norbere burua bilatu, munduan kokatu, eta aurrera egiteko bapatez.

Haurra bere bakardadean, edo ia. Haurra lau aingeru guardakoek babestuta. Haien begietan, *vilgiantia oculo*, hamaika lekutatik pasatuko baita, ez beti arriskurik gabe, bere helburua lortu bitarte.

«Kepa atezaina, Nikolas non da? Bidean. Zer egiten? Atzeraka joaten. Atzera zertarako? Abiada hartzeko. Abiada zertarako? Indarra hartzeko. Indarra zertako? Balioa botatzeko. Baloia zertako? Txuta egiteko. Txuta zertako? Gero bere lagunek barre ez egiteko».



'Mundua baloi batean'

Idazlea: Patxi Zubizarreta. **Ilustratzailea:** Elena Odriozola. **Argitaletxea:** Elkar.